

bai mimika kontua, dana oso ongi lotua eta kateatua dago gai nagusira, eta Ondarruko izkera-azentuek gozatasun aundia ematen dio. Bildur gabe esan diteke Bilbon ilbeltzeko 4-an egin zutena atzean gelditu dala eta pausu seguruz eta abiadura aundiz aurrera dijoztela. An zeuden ikusleak kanpora ateratzean aoran laudorioa eta goresmena besterik etzuten, eta uste dugu, aste guren guztietan Ondarrun obra au jartzeko asmotan diran ezkerre, zeaztasun geiagori jaramon egingo diotela oraindik denboraren barrena, eta gauza ezin obe batera iritxiko dirala, ondarrutarren izena geroago eta gorago ipiñirik, orain oso goian ipiñi badute ere.

Eredu ederra, Ondarruko erriak beste erri euskaldun askori ematen diena. Alde batera utzirik koloreak, guztiak batu dira euskeraren inguruan, euskerazko teatroan, eta esan dute: gauza guztien gairietik danok gara euskaldunak.

Gazteizeko gorazarrearen ostean, martiko emeretzian, Bilbon izan dira Gazteizeko programa bera ekarririk. Arrakasta aundia izan zuen Bilbon ere, eta entzun zuen euskaldun askok, bere aoz esan zituen Gazteizekoaz alde aurretik entzundako laudorioak.

## **ASTRABUDUAKO KURUTZE-BIDEA**

Aurten ere, igaz bezala, ostiral santuz kurutze-bide bizia egingo zala jakifierazi zan, illunpetan zuziekin argi agiñik, Astrabuduako bideetatik zear tontortxo bateraifio. Astrabudua Bilboko eremu barruan dago. Baiña nola eguraldi oso txarra zegoan etzan egin eta urrengo egunean egin bear izan zan. Egonaldiak, kantak, sermoiak, eta gairerako guztia euskeraz eta erderaz, bietara, egin ziran.

Bilboko frantzizkotarrak ere ostiral santuz, Astrabuduakoa bukatutakoan, beste ainbeste egin nai izan zuten ango antzera eta gisara, euskearaz eta erderaz auek ere, baiña eguraldi txarra.

## **XABIER PEÑA EUSKERA IRAKASLEARI GORAZARREA**

Bilbon, aprillaren 29-an, ikasleak gorazarre bat egin diote Euskaltzaindiaren etxean Xabier Peña jaunari larru-paper dotore eta ongi apaindu batean guztien firmak eskeifirik bere urte egunaren bezperan.

Gorazarre onen arrazoia izan da amar urte bete dituala euskera irakasten zintzo eta biotz osoz. Peña jaunak itz batzuek esan zituen eskerrak emanik, eta aurrerantzean ere, Jaungoikoak nai badu, bere burua oso osoan orainarte bezala, irakaslanetara beartzen duela adierazi zuen.